




# Nafarroako Gazte Kontseilua (2019-2022)



*2023ko abendua*



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA



## AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA .....	3
II. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA .....	4
II.1 Datu orokorrak .....	4
II.2 Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren gastuak eta diru-sarrerak (2019-2022).....	8
II.3 Kontuak Batzar Nagusian aurkeztea.....	13
III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK.....	14
IV. AURKAKO IRITZIA.....	15
V. AURKAKO IRITZIAREN OINARRIA.....	16
VI. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK.....	18
VII. AZPIMARRA-PARAGRAFOA .....	19
VIII. BESTELAKO LEGE- ETA ERREGELAMENDU-ERREKERIMENDUEI BURUZKO TXOSTENA .....	20
IX. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA .....	22
X. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	23
XI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK .....	24
1. GEHIGARRIA. LEGE ESPARRUA .....	27
1. ERANSKINA. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAK EGINDAKO JARDUERAK (2019-2022) .....	28
2. ERANSKINA. NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN EGOERA BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2019KO, 2020KO, 2021EKO ETA 2022KO ABENDUAREN 31N.....	33



## I. Sarrera

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, 2023ko martxoaren 27ko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganberari, Navarra Sumak, Nafarroako Alderdi Sozialistak, EH Bildu Nafarroak eta Podemos Ahal Dugu Foru Parlamentarien Taldeak eskatuta, “*Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren kontuak 2011tik 2022ra*” fiskalizazio txostena eskatzea.

Parlamentuaren eskaerak 2011-2022 aldiko kontuak aztertzeko eskatzen bazuen ere, Ganbera honek 2019-2022 aldiko kontuak ikuskatu ditu, uste baitu berrikuspen urteak handituta ere ondorioak ez zirela nabarmen aldatuko.

Auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen landa-lana urria eta azaroa bitartean, Ganberako zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, lan horren emaitzen berri eman zitzaizen Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko eta Nafarroako Gazteriaren Institutuko arduradunei, bai eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari eta Kultura eta Kirol kontseilariari ere, alegazioak egin zitzaizten. Epea amaituta, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko (aurrerantzean, NGK) eta Nafarroako Gazteriaren Institutuko langileei lan hau egiten laguntzeagatik.





## II. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua

### II.1 Datu orokorrak

#### *Sorrera*

NGK apirilaren 18ko 110/1986 Foru Dekretuaren bidez sortu zen. Ondoren, Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legea eta NGKren osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezartzen dituen ekainaren 21eko 53/2023 Foru Dekretua onetsi ziren.

Foru lege horrek honela definitzen du NGK: “zuzenbide publikoko entitate bat da, nortasun juridiko propioa duena eta bere xedeak betetzeko gaitasun osoa duena. Jokatu du foru lege honetan, bera sortzeko foru dekretuan eta bera garatzeko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera”.

2015ean, NGKk “Barne Araudia eta Batzarren Araudia” onartu zuen, haren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzeko.

53/2023 Foru Dekretuak berariaz adierazten du entitate hori ez dela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, eta Nafarroako Gazteriaren Institutuaren (aurrerantzean, NGI) bidez jarriko dela harremanetan horrekin.

Bestalde, 1991n Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua erakunde autonomoa sortu zen. Ondoren, azaroaren 15eko 327/2019 Foru Dekretuak, Nafarroako Gazteriaren Institutua erakunde autonomoa sortu eta haren estatutuak onesten dituenak, Nafarroako gazteriaren arloko eskumenak esleitu zizkion. Zehazki, gazte politika publikoak planifikatu, sustatu eta ebaluatzeko oinarrizko funtzioa, berariazko ekintzak garatuz eta arlo horretan zeharkakotasun printzipioa aplikatuz.

#### *Eginkizunak*

Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legeak ezartzen duenez, NGKren funtsezko helburua da gazteen parte-hartzea sustatzea Nafarroako Foru Komunitateko garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalean, eta gazteen eskubideak zaintzea, bereizkeriarik eta bazterketarik izan ez dezaten eta erabat gara daitezten. Helburu hori honako eginkizun hauetan zehazten da:

- Gazteen asoziazionismoa sustatzea, aukeren berdintasunean, haren garapena sustatuz eta beharrezkotzat jotzen duen edo eskatzen zaion babesa, laguntza eta aholkularitza emanez.

- Jarduerak sustatzea ziurtatze aldera gazteek berdintasunez parte hartzen dutela haiengan eragina duten erabaki eta neurrietan.





- Administrazioak gazteriarekin zerikusia duten gaiak aztertzeko ezartzen dituen kontsulta organoetan parte hartzea, eta interesgarritzat jotzen dituen gainekoak proposatzea.
- Nafarroako Gobernuarekin lan egitea gazteentzako politika bat prestatzen, populazio gaztearen arazoekin lotutako kanpainak eta jarduerak sustatuz.
- Gazteriarekin zerikusia duten gaietako buruzko txosten edo azterlanak egitea, beren kasa nahiz Administrazioak eskatuta. Horretarako, NGK Administrazioari beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatu ahalko dio.
- Gazteen bizi kalitatea hobetzen eta aisia modu osasuntsuan garatzen laguntzea, jarduera kulturalak, informatiboak, prestakuntzakoak eta parte-hartzaileak antolatuz eta horiek gazteen populazio osoaren ezaugarrien arabera planifikatuz.

### *Gobernu organoak*

“Barne Araudian eta Batzarren Araudian” ezarritako gobernu organoak honako hauek dira:

- Kide anitzeko organoak:
  - a) Batzar Nagusia, NGKko kide diren erakundeetako ordezkariak osatua.
  - b) Batzorde Iraunkorra: lehendakariak, lehendakariordeak, diruzainak, idazkariak, kudeaketaren arduradunak eta Batzar Nagusiak hautatutako sei batzordekideak osatzen dute.
- Pertsona bakarreko organoak:
  - a) Lehendakaria.
  - b) Lehendakariordea.
  - c) Idazkaria.
  - d) Diruzaina.

53/2023 Foru Dekretuak aipatutako organoak mantentzen ditu, baina Batzorde Iraunkorreko kudeaketa arduradunaren figura ezabatzen du, eta Berme Batzordea sortzen. Batzorde hori Batzar Nagusiak kide diren erakundeen ordezkarien artean aukeratutako hiru pertsonak osatuko dute.

Foru dekretu horren lehen xedapen iragankorrak ezartzen duenez, NGK gehienez ere urtebeteko epean aurkeztu beharko du bere barne antolaketaren eta funtzionamenduaren erregelamendua, eta Nafarroako Gobernuan gazteriaren arloko eskumena duen erakundeak baliozkotu beharko du, legezketasunaren ondorioetarako. Txosten hau idatzi den egunean, NGK erregelamendua egiten dabil, eta, beraz, 2015ean onartutako “Barne Araudia eta Batzarren Araudia” aplikatu beharko litzaioke. Araudi horretatik, alderdi hauek nabarmenduko ditugu txostenaren ondorioetarako:





- “ • *Lehendakariaren eginkizuna izanen da behar bezala hitzartutako ordainketak agintzea.*  
• *Diruzainak kontabilitatea kontrolatu beharko du.*  
• *NGKren lehen baliabide ekonomikoa hura osatzen duten erakundeen kuotetatik eratorritako diru-sarrerera izan behar da.*  
• *Kontabilitatea itxi ondorengo lehen batzarrean, ekitaldiaren memoria aurkeztuko da, aldi horretako diru-sarreraren eta gastuen kontuarekin eta abenduaren 31ko egoera balantzearekin batera.*  
• *Batzar Nagusiak kontuan hartu, eztabaidatu eta, hala badagokio, onetsi egin behar ditu kontuen egoera, egoera balantzea eta dagozkion aurrekontu aurreikuspenak”.*

### **Eskubide osoko erakunde kideak**

Apirilaren 18ko 110/1986 Foru Dekretuaren eta 2015ean NGKk onetsitako “Barne Araudiaren eta Batzarren Araudiaren” arabera, eskubide osoko kide izan daitezke:

- Erroldatutako gazteen elkarteak eta kolektiboak, gutxienez 50 kide dituztenak.
- Gutxienez 100 kide dituzten hiru gazte elkartek edo kolektibok osatutako federazioak.
- Gainerako elkarteetako gazteen atalak, baldin eta autonomia funtzionala, gazteen atalean berariaz kide izateko aukera eta gutxienez 50 kide badituzte.
- Gazteei zerbitzuak emateko berariazko helburua duten erakundeak, betiere urtean gutxienez 500 gazteri ematen badiete zerbitzua.
- 2.000 biztanletik gorako udalerrietan eratutako gazteriaren tokiko kontseiluak edo hiru udalerrri edo gehiago biltzen dituzten eskualdeko kontseiluak, udal-lek eta kontzejuek aitortuta badaude.

Kide izateko, gutxienez Batzar Nagusia egin baino 60 egun lehenago onarpen eskaera egin behar da; eskaera hori batzar horretan bozkatuko da, Batzorde Iraunkorrak txostena egin ondoren. Onartu eta hurrengo egunean emango zaie alta kide berriei, Batzar Nagusian bozketa eginez.

Eskubide osoko kide izateari utziko zaio batzarrean edo NGKko arloetan lau urtez parte hartzen ez bada, erakundea desgaiten bada edo borondatezko baja eskatzen bada.

Borondatezko bajak jasotzen diren egunean izanen dute eragina. Baldintzak ez betetzeagatik bajek eskubide osoko entitate gisa duten estatusari eutsiko diote baja ematen zaien batzarraren hurrengo egunera arte. Gai-zerrendako gaietako bat “erakunde kideen altak eta bajak” izanen da nahitaez.

NGIk 2022ko abenduaren 31n kide ziren erakundeen kopuruari buruzko ziurtagiri bat eman zigun, orduan NGKko lehendakaria zenarena, eta 55 kide zeuden. Bestalde, deigarria da NGKk jakinarazi zigula 2022ko abenduaren 31n 51 erakunde zeudela, eta horietatik bi ez zeudela martxan.





Erakundeen kopuru zuzena egiaztatzeko, kide izateko eskatzen diren baldintzak betetzen ziren aztertu genuen. Horretarako, azken lau urteetako batzarretako partaidetza aktak berrikusi genituen, eta egiaztatu genuen 16 elkartek baino ez zutela parte hartu aldi horretan.

Gainerako baldintzak betetzen zirela egiaztatzeko, NGIk datuak eman zizkigun erakunde motari, bazkide kopuruari eta NGKn duten parte-hartze aktiboari buruz.

Gure azterketaren ondorioa zera izan zen: aztertutako aldian, 16 elkarteetatik zazpi soilik betetzen dituzte aplikatu beharreko araudian eskatzen diren baldintzak. Hala ere, beste hiruk ere baldintzak betetzen dituzte, kontuan hartuta NGKren osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezartzen duen ekainaren 21eko 53/2023 Foru Dekretuan bazkide kopuruari buruz ezarritako aldaketak.

### Langileria

2019-2022 aldian, hauek izan dira NGKn lan egin duten langileak:

	2019	2020	2021	2022
Administraria	1	1	1	1
Asoziazionismo teknikaria	1	1	1	1
Sozioekonomia teknikaria	1	1	-	-
Gazte Parlamentua proiektuko teknikaria	1	1	1	1
Komunikazioko teknikaria	1	1	1	1
Koordinatzailea	1	1	-	-
<b>Langileak, guztira</b>	<b>6</b>	<b>6</b>	<b>4</b>	<b>4</b>

2022an lau pertsona ari ziren lanean NGKn, 2019an baino bi gutxiago. 2021etik aurrera, NGKk ez du izan ez sozioekonomiaz arduratzen den langilerik, ez koordinazioaz arduratzen den langilerik. Lehendakaria koordinatzaile gisa kontratatu zuten, eta horregatik ordainsari bat jaso zuen hilero.

Aurrerago azalduko den bezala, langileen murrizketa NGIk emandako finantzaketa gutxitzearen ondorio izan da.

NGKko langileak 2019an sinatutako “estatutuz kanpoko hitzarmenaren” bidez arautzen dira. Hitzarmen horren indarraldia 2021eko abenduaren 31n amaitu zen, eta 2022ko irailean berritu zen. Langile horien nominak kanpoko aholkularitza batek egiten ditu.

### Egindako jarduerak

NGKk egindako jardueren urteko memoria aurkezten dio NGIri. Txosten honen 1. eranskinean 2019-2022 aldian egindako jardueren laburpena dago. Kontuan izan behar da 2020ko eta 2021eko jarduera COVID-19aren pandemiak baldintzatzen duela.





NGKren 2019-2022 aldiko memoriak aztertuta, ikusi dugu erakunde horrek egindako jarduerak gutxitu direla.

## II.2 Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren gastuak eta diru-sarrerak (2019-2022)


### II.2.1 Gastuak

2019-2022 aldian, urte horietako banku mugimenduak kontuan hartuta, NGKk benetan ordaindutako gastuak 658.447 eurokoak izan ziren. Hona xehetasunak:

	2019	2020	2021	2022	Guztira
Langileria	146.032	134.573	103.500	109.972	494.077
Jarduerak egiteko	25.496	20.151	25.927	25.004	96.578
Funtzionamendu gastuak	7.101	7.065	9.258	12.093	35.517
Ekipamendua	2.700	2.906	6.166	2.869	14.641
Finantza-gastuak	437	1.067	299	1.553	3.356
Beste gastu batzuk	5.502	3.121	2.985	2.669	14.277
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>187.268</b>	<b>168.883</b>	<b>148.135</b>	<b>154.160</b>	<b>658.446</b>

Aurreko datuen analisitik abiatuta honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:

- Hona hemen NGKren gastuaren banaketa, kontzeptuka, 2019-2022 aldian:



Gastuaren ehuneko 75 langileentzat izan zen, ehuneko 15 jarduerak egiteko, ehuneko bost funtzionamendu gastuetarako, ehuneko bi ekipamendurako eta beste gastu batzuetarako, eta ehuneko bat finantza-gastuetarako.

- Langileria gastuak eta jardueretarako<sup>1</sup>, funtzionamendurako eta ekipamendurako gastuak bat datoz NGIk eta Nafarroako Parlamentuak emandako dirulaguntzen justifikazio gisa aurkeztutakoekin.

<sup>1</sup> 2022ko jardueren gastuan Tuterako Udalari eta Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuari jarduerak egitegaitiko fakturatutako 3.612 euro ere sartu ditugu.







- “Beste gastu batzuk” kontzeptuak banku mugimenduen ondoriozko gainerrako gastuak biltzen ditu, aipatutako dirulaguntzak justifikatzeko aurkeztutako gastuak kendu ondoren.

- Diru-sarrerak jasotzearen eta gastuen sortzapenaren artean desfasea zegoenez, eta diruz lagundu gabeko gastuak zeudenez, erakunde honek kreditu kontu bat erabiltzen zuen aztertutako aldian, eta horren finantza gastuak 3.356 eurokoak izan ziren aldi horretan.

### II.2.2 Diru-sarrerak

2019-2022 aldian, NGKren banku mugimenduen arabera, erakunde horrek 659.642 euro kobratu zituen guztira. Hona xehetasunak:

	2019	2020	2021	2022	Guztira
Hitzarmena NGIrekin	161.329	141.445	124.050	124.942	551.766
Hitzarmena Nafarroako Parlamentuarekin	20.000	22.400	21.353	26.696	90.449
Beste diru-sarrera batzuk	13.473	2.695	317	942	17.427
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>194.802</b>	<b>166.540</b>	<b>145.720</b>	<b>152.580</b>	<b>659.642</b>

Aldi horretako diru-sarrera guztien ehuneko 83 NGKren eta NGIren arteko hitzarmenean araututako dirulaguntzari dagokio, ehuneko 14 Nafarroako Parlamentuarekin egindako hitzarmenari, eta gainerako ehuneko hiru beste entitate publiko batzuentzat egindako jarduerengatik lortutako diru-sarrerari, hala nola Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuarentzat edo udalentsat.

NGKri aplikatu beharreko araudian ezarrita dago bere baliabide ekonomikoetako bat kideen kuotak izanen direla; hala ere, erakunde horrek ez du bide horretatik diru-sarrerarik eskatu, ezta kobratu ere, ez aztertutako aldian, ez sortu zenetik.

Jarraian, NGKren eta NGIren arteko hitzarmenari eta Nafarroako Parlamentuarekin egindakoari buruzko alderdiak zehaztuko ditugu.

### Hitzarmena Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin

NGKk urtero jasotzen du, 1986an sortu zenetik, NGIren dirulaguntza izenduna, urteko hitzarmen batean arautua. Hitzarmen horrek bi kontzeptuetarako finantzaketa barne hartzen du: NGKren helburuak betetzeko beharrezkoak diren gastu arruntak (langileak, zerbitzuak eta egindako jarduerekin lotutako beste batzuk) eta material informatikoa eta inbentariagarria erostera bideratutako kapital-leko gastuak.

Urtero sinatzen den hitzarmenean ezarritako zenbatekoak ordaintzeko eta justifikatzeko prozedura honako hau da:

- Lehenengo ordainketa bat, ehuneko 30ekoa, hitzarmena sinatzen denean.





- Bigarren ordainketa bat, dagokion ekitaldiko urtarriletik ekainaren 15era bitartean (euskarri hori aurkezteko azken eguna) NGKk izandako gastuak justifikatu ondoren.

- Hirugarren ordainketa bat, ekitaldiko urriaren 15a baino lehen gastuak justifikatu ondoren.


- Gastuen azken justifikazioa ekitaldiko abenduaren 10a baino lehen egin behar da, dirulaguntza osoa jaso ahal izateko.

- NGKk, gainera, jardueren memoria eta diru-sarreraren eta gastu orokorren balantze ekonomikoa aurkeztuko ditu ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen.

- NGIk eta kontu-hartzaile delegatuak NGKk aurkeztutako justifikazio guztiak berrikusiko dituzte, eta, hala badagokio, dagozkion itzulketak egingen dira.

2012-2022 aldian, NGKk guztira 1,16 milioi euro eskuratu zituen NGItik, finantzatutako gastuen arabera:

**Nafarroako Gazteriaren Institututik eskuratutako diru-sarrerak  
2012-2022**



Aurreko datuen analisitik abiatuta honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu<sup>2</sup>:

- 2022an, NGKren diru-sarrerak 123.173 eurokoak izan ziren, 2021ekoak baino ehuneko bi handiagoak, baina 2012koak baino ehuneko 26 txikiagoak.

<sup>2</sup> Emandako zifrak bat datoz NGKk hitzartutako eta azkenean kobratutako kopuruekin. Azken hiruhilekoan jasotako diru-sarreretan batzuetan gertatzen den desfasea dela eta, baliteke hemen adierazitako kopuruak ez otortzea guztiz bat 10. orrialdeko koadroan adierazitako NGKk benetan kobratutakoekin.





- 2023an, NGIk onartutako behin betiko kredituak 88.000 eurokoak izan ziren, hau da, 2022koak baino ehuneko 29 txikiagoak; txosten hau idatzi den egunean, 82.368 euroko gastuak aitortu dira.

- 2012-2022 aldian, diruz lagundutako gastuaren ehuneko 78 langileei zegokien, ehuneko 14 zerbitzuei, ehuneko zazpi beste gastu arrunt batzuei eta ehuneko bat material informatiko eta inbentariagarriari.

Hitzarmen horren bidez, aurreko epigrafean adierazitako langile guztiak finantzatu dira, Gazte Parlamentua proiektuko langilea izan ezik. Langile horren gastua Parlamentutik jasotako dirulaguntzarekin ordaintzen da, hurrengo atalean azalduko dugun bezala. 2023an hitzarmenean ezarritako finantzaketa murriztu zenez, Batzar Nagusiak erabaki zuen komunikazioko teknikariak NGKn lan egi-teari uztea.

### *Hitzarmena Nafarroako Parlamentuarekin*

NGKk Nafarroako Parlamentutik lortutako finantzaketa 2017az geroztik urteko hitzarmen batean araututako dirulaguntzatik dator. Hitzarmen horren helburua “Nafarroako Gazte Parlamentua” proiektuari laguntzea da, eta horretarako programatzen diren jarduerak finantzatzen dira, urtero aldatzen den gehieneko zenbateko bateraino, bai eta horiek antolatzeaz arduratzen diren langileen gastua ere.

Zenbatekoak ordaintzeko eta justifikatzeko prozedura honako hau da:

- Lehen ordainketa bat aurrerakin gisa, aurreikusitako gastuaren ehuneko 80koa.

- Gainerako ehuneko 20a, jardueraren gastuaren gehieneko zenbatekora iritsi arte, jarduera gastu horiek justifikatu ondoren egin ostean.


- Parlamentuak aurkeztutako justifikazio guztiak berrikusiko ditu, eta, hala badagokio, dagozkion itzulketak egingen dira.





2017-2022 aldirian, NGKk guztira 124.495 euro eskuratu zituen Nafarroako Parlamentutik, finantzatutako gastuen arabera:

**Nafarroako Parlamentutik eskuratutako diru-sarrerak 2017-2022**



Aurreko datuen analisitik abiatuta honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:

- 2022an, NGKren diru-sarrerak 25.823 eurokoak izan ziren, 2017an eta 2021ean baino ehuneko 77 eta ehuneko zortzi handiagoak, hurrenez hurren.

2023an, hitzarmenak 28.000 euroko gehieneko gastua aurreikusten du; horietatik 25.823 euro ordaindu dira, guztira, txosten hau idatzi den egunean. Lan honen irismena zehaztu ondoren, aipatzekoa da Nafarroako Parlamentuak NGKri jakinarazi diola ez duela hitzarmena berrituko 2024an.

- 2017-2022 aldirian, diruz lagundutako gastuaren ehuneko 78 langileei zegokien, ehuneko 13 sustapenari eta sustapen kanpainei, ehuneko sei beste gastu arrunt batzuei eta ehuneko hiru informatikari.

Hitzarmen horren kontura finantzatutako langilea proiektua kudeatzeaz arduratzen den teknikaria da. Lehen adierazi dugun bezala, 2024an dirulaguntza hori desagertuko denez, teknikariak urte horretako urtarriletik aurrera utziko dio NGKn lan egiteari.

### *Hitzarmenen justifikazioak berrikustea*

NGKk NGItik eta Nafarroako Parlamentutik 2022an jasotako dirulaguntzei buruz aurkeztutako justifikazioa berrikusi dugu, eta ondorioztatu dugu gastuak





baimenduta, kontu hartuta eta justifikatuta daudela, eta ematea, justifikatzea eta ordaintzea, edo, hala bazegokion, itzultzea, araudi arauemailean ezarritakoaren arabera egin zirela. Hala ere, egiaztatu dugu 2022an NGKk ez zituela diruz lagundu zitezkeen 1.128 euroko gastuak aurkeztu.

### II.3 Kontuak Batzar Nagusian aurkeztea

Lehen adierazi dugun bezala, Batzar Nagusiak kontuan hartu, eztabaidatu eta, hala badagokio, onetsi behar ditu aldi horretako kontuen egoera, diru-sarreraren eta gastuen kontua (galdu-irabazien kontua), abenduaren 31ko egoera balantzea eta dagozkion aurrekontu aurreikuspenak.

Ez dago jasota organo horrek abenduaren 31ko egoera balantzea onetsi duenik, ezta galdu-irabazien kontua ere, gutxienez azken bost urteetan aplikatu beharreko finantza informazioaren esparruaren arabera.





### III. Helburuak, norainokoa eta mugak

Jasotako parlamentu eskaera kontuan hartuta, gure lanaren helburua zera izan da: iritzia ematea ea NGKren 2019-2022 aldiko urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duten aipatutako urteetako abenduaren 31ko ondareari, finantza egoerari, aurrekontu likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate eta aurrekontu printzipio eta irizpideei jarraikiz.

Fiskalizazioaren norainokoa NGKren urteko kontuak dira, eta abenduaren 31ko egoera balantzeak eta galera eta irabazien kontuak osatzen dituzte 2019-2022 aldirako.

NGKk ez ditu urteko kontuak egiten, ezta, beraz, Batzar Nagusiak urtero onetsi behar dituen kontabilitateko egoera-orriak ere (egoera balantzea eta galdu-irabazien kontua). Horrek gure lanaren norainokoa muga zezakeen arren, erakunde horrek kontabilitatea erregistratzeko erabiltzen duen aplikazio informatikorako sarbidea izan dugu; horrela, txosten honen 2. eranskinean jasotako abenduaren 31ko egoera balantzea eta galdu-irabazien kontua lortu ditugu.





#### **IV. Aurkako iritzia**

Nafarroako Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, NGKren urteko kontuak fiskalizatu ditu. Kontu horiek balantzea eta galera eta irabazien kontua barne hartzen dituzte, abenduaren 31n 2019tik 2022ra.

Gure iritiz, txosteneko “Aurkako iritziaren oinarria” atalean azaldutako alderdien eragina oso esanguratsua denez, urteko kontuek ez dute erakusten, alderdi esanguratsu guztietan, NGKk 2019tik 2022ra bitarteko abenduaren 31n ondareari eta finantza egoerari dagokienez zuen irudi fidela, ez eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomikoena ere, betiere aplikatzekoa den finantza informazioaren arau esparruarekin eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideekin bat etorritz.





## V. Aurkako iritziaren oinarria

Hona hemen gure kontrako iritziak dituen salbuespenak<sup>3</sup>:

a) Ez dira NGKren jarduerarekin lotutako kontabilitate eragiketa guztiak kontabilizatu. Adibide horietako batzuk dira ekitaldiaren irekiera idazpena, itxiera idazpena edo berrikusitako banku mugimenduetan dauden gastu jakin batzuen erregistroa falta izatea. Adibide gisa, 2022an ez ziren kontabilizatu 2.485 euroko gastuak, ezta 7.949 euroko diru-sarrerak ere.

b) Ez da sortzapen printzipioa aplikatzen, eta ekitaldi bateko gastuak eta diru-sarrerak hurrengo ekitaldian kontabilizatu dira. 2022an, 2021eko ekitaldiko 2.568 euroko gastuak eta 6.740 euroko diru-sarrerak kontabilizatu ziren.

c) Akats nabarmenak ikusi ditugu NGKren kontabilitatean; besteak beste, honako hauek:

- 2019-2021 aldian, dirulaguntzengatiko diru-sarreraren aintzatespena ez da behar bezala kontabilizatu, zenbateko horiek ez baitira jaso galdu-irabazien kontuan.

- 2022an, zenbatekoak diru-sarreraren kontu batean kontabilizatu badira ere, zifrak ez dira galdu-irabazien kontuan islatu, aplikazio informatikoaren akats bategatik, soilik gastuen zifrak mantendu baitira.

- 2022an, diruzaintza igoera bat erregistratu zen “erregularizazio idazpena” kontzeptupean, guztira 150.905 euro; NGKk berak adierazi zigun ez zekiela nondik zetorren diru-sarrera.

- 2022an, bi aldiz kontabilizatu dira 4.012 euroko gastuak.

d) 2019-2022 aldian, kreditu lerroko mugimenduak ez dira behar bezala kontabilizatu, eta horrek diruzaintzako saldoa negatiboa izatea ekarri du.

e) Horrek guztiak esan nahi du egoera balantzea oker dagoela aztertutako ekitaldi guztietan, eta aktiboaren eta pasiboaren balioak negatiboak direla; halaber, galdu-irabazien kontua ez da zuzena, kontu jakin batzuetako saldoak ez baitira koherenteak aplikatu beharreko finantza informazioaren esparruarekin.

Gure fiskalizazio lana egin dugu kanpo kontroleko erakunde publikoek dituzten oinarrizko fiskalizazio printzipioei jarraikiz; zehazkiago, ISSAI-ES 200 arauari jarraituz, fiskalizazio finantzarioaren gainekoa. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean hain zuzen ere.

---

<sup>3</sup> Adierazitako urte guztietan aplikatu beharreko salbuespenak adieraziko ditugu, baina kasuren batean 2022ko ekitaldikoak bakarrik kuantifikatuko ditugu.







NGKrekiko independenteak gara, kontu orokorrei buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika alorreko eta independentziaren defentsaren alorreko baldintzak betez, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak eskatzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure aurkako iritzia emateko.





## **VI. Auditoretzako funtsezko gaiak**

Auditoretzako funtsezko gaiak dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan duten horiek, jadaneko epealdiko urteko kontuei buruz egin dugun fiskalizazioan. Gai horiek jorratuak izan dira urteko kontuen multzo osoari buruz egin dugun auditoretzaren eta ondorioztatu dugun iritziaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako “Aurkako iritziaren oinarria” atalean azaldutako gorabeherak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako alderdiren berririk ematen.





## VII. Azpimarra-paragrafoa

Kontabilitateko egoera-orrien dataren eta auditoretza txostenaren dataren artean gertaturiko ondorengo gertakari hauek nabarmendu nahi ditugu:

NGKren gastuen eta diru-sarrereren fluxuak ez datoz bat denboran; beraz, erakundearen gastuak NGIren eta Nafarroako Parlamentuaren finantzaketa jaso aurretik sortzen dira eta orduan aurre egin behar zaie. Finantzaketa hori diru-sarrera guztien ehuneko 97 izan zen aztertutako aldian. Hori dela eta, aztertutako aldian, NGKk banku kredituetara jo du, beharrezko likidezia izateko.

2023ko apirilean, kreditua kontratatu zuen banketxeak NGKri jakinarazi zion produktu hori bertan behera geratu zela.

Inguruabar hori eta NGKk aurki ordaindu behar dituen gastuak (langileen nominak, hornidura gastuak, etab.) kontuan hartuta, Ganbera honen iritziz ziurgabetasun handia sortzen da erakunde horrek gastu horiei aurre egiteko duen gaitasunaren inguruan, eta horrek arriskuan jar lezake NGKren jarraipena.





## VIII. Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimenduei buruzko txostena

NGKren urteko kontuei buruzko gure finantza auditoretzan ezarritako irismena kontuan hartuta, erakunde horretako kide anitzeko eta pertsona bakarreko organoen eginkizunak betetzen diren berrikusi dugu, haien kontuak egin eta onestearekin eta 2015ean onartutako eta ikuskatutako aldi aplikagarria den “Barne Araudian eta Batzarren Araudian” ezarritako araubide ekonomiko eta administratiboarekin lotuta.

Egiaztapen hori egiteko, barne kontrola egiaztatzeko auditoretza prozedurak aplikatu dira.

Ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu jotzeko 2019-2022 aldi, NGKko barne kontrola aintzat hartuta, ez direla bete “Barne Araudiaren eta Batzarren Araudiaren” honako alderdi garrantzitsu hauek: Batzorde Iraunkorrak ez zion Batzar Nagusiari aldi horretako galera eta irabazien kontua aurkeztu, ez eta ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31ko egoera balantzea ere. Ondorioz, Batzar Nagusiak ez zituen kontabilitateko egoera-orri horiek kontuan hartu, eztabaidatu eta onetsi.

- Batzar Nagusiak ez zuen kideek NGK ekonomikoki mantentzen laguntzeko kuotarik onartu.

- Ez dago jasota lehendakariak ordainketa banku sinadura bikoitzeko sistemaren bidez agintzeko eginkizuna bete zuenik; administrazio lanak egiten dituen langileak bakarrik egin zuen.

- Ez dago jasota diruzainak aldi behin Batzorde Iraunkorrari NGKren egoera ekonomikoaren berri eman dionik, ezta kontabilitatea kontrolatzeko eta ondasunen inbentarioa egiteko eginkizunak bete dituenik ere.

- NGKren webguneak ez dauka gardentasun ataririk gaituta, eta ez dauka informaziorik Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 18. artikuluan eskatzen diren publikotasun errekerimenduei buruz. Honako hauek jotzen ditugu funtsezkotzat:

- a) Informazio instituzionala, antolaketakoa eta plangintzakoa.
- b) Goi kargudunei eta zuzendaritzako langileei buruzko informazioa.
- c) Garrantzi juridikoa duen informazioa.
- d) Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta finantzarioa.

- Erregelamenduak ezartzen du hautetsien jarduna doakoa izanen dela, baina xedatzen du bidaia gastuak eta dietak kobratzeko eskubidea izanen dutela, eta, hala badagokio, konpentsazio bat jasoko dutela Batzorde Iraunkorrak ezarritako dedikazio bereziko kontzeptuagatik, Batzarrak ezarritako irizpideei jarraiki.





2015eko martxoan, NGKren ohiko batzarra egin zen, konpentsazio hori ezartzeko aukerari buruz eztabaidatzeko. Azkenean, onartu egin zen, aldeko bost botoekin, aurkako laurekin eta bost abstentziorekin. Horrek esan nahi du 2019an eta 2020an lehendakari kargua zuen pertsonak koordinatzaile kargua ere betetzen zuela, eta 32.441 euroko ordainsaria jasotzen zuela horregatik (18.196 euro 2019an eta 14.245 euro 2020an).

2020an, ordainsaria txikiagoa izan zen, NGIko kontu-hartzaile delegatuak jarritako kexa batean hainbat gai aipatu zirelako, besteak beste jazoera hori. Nahiz eta azkenean gobernuak kexa baztertu, lehendakariak ez zuen zegokion ordainsaria jaso.

Erregelamenduan konpentsazio hori onartzeko ezarritako izapidea bete bazen ere, NGKk ordainketa horiei eman zien tratamendua —besteren konturako eta lan arloko kontratazio baten ondorio gisa tratatu zituen— ez zen juridikoki zuzena izan. Izan ere, lehendakaria langileztat hartu zen. Hori ez da koherentea, eta horren froga da langileen estatutuz kanpoko hitzarmena, 2019ko otsailean, lehendakari lanpostua zuen pertsonak sinatu zuela bai lehendakari gisa, bai langile gisa.





## **IX. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren erantzukizuna**

Diruzainaren ardura da kontabilitatea kontrolatzea. Batzorde Iraunkorraren ardura da aldi horretako diru-sarreraren eta gastuen kontua eta abenduaren 31ko egoera balantzea aurkeztea Batzar Nagusian, onar daitezen.

Batzorde Iraunkorrek bermatu behar du egindako kudeaketa jarduerak eta eragiketak bat datozela “Barne araudiarekin eta batzarren araudiarekin”, horretarako beharrezkotzat jotzen dituen sistemen bidez.





## X. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure helburua da arrazoizko ziurtasun bat lortzea urteko kontuetan iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialik ez egoteari buruz.

Arrazoizko ziurtasuna segurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo kontroleko organoak arautzen dituen araudiaren arabera egindako fiskalizazioak beti detektatuko duenik akats material bat edo ez-betetze nabarmen bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izan daitezke, bai eta legezketasuna ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materialtzat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izan den dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontroleko organoei buruzko araudiarekin bat etorritik, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legeak ez betetzeko arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta auditoretzako behar adinako eta behar bezalako ebidentzia lortzen dugu gure iritzari oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo ez-betetze bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errearen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne kontrolaren saihestea.

- Barne kontrolari buruz fiskalizaziorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Aplikatutako kontabilitate politikak egokiak ote diren ebaluatzen dugu, bai eta kontabilitate estimazioen eta kudeaketa organoak jakinarazitako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, azaleratutako informazioa barne, eta ea kontu horiek irudi leiala adierazteko moduan azaltzen ote dituzten transakzioak eta horien azpiko egitateak.

Erakundearen gobernu organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza proben norainokoa eta horiek egiteko unea, fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri. Entitateko gobernu organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan funtsezko izan diren gaiak.





## XI. Ondorioak eta gomendioak

Nafarroako Gazteriaren Kontseilua 1986an sortu zen, Nafarroako Foru Komunitatearen garapenean gazteen parte-hartzea sustatzeko eta gazteen eskubideak zaintzeko. Erakunde publiko atipikoa da, eta, araudian xedatutakoa gorabehera, diru-sarrera guztiak jatorri publikokoak dira; funtsean, Nafarroako Gazteriaren Institututik (ehuneko 83) eta Nafarroako Parlamentutik (ehuneko 14) datoz.

2022an, lau pertsonak egin zuten lan NGKn; hala ere, 2023ko apirilean NGItik jasotako dirulaguntza ehuneko 29 murriztu zenez, pertsona batek bertan lan egi-teari utzi zion. Era berean, Nafarroako Parlamentuak NGKri jakinarazi zion 2024an ez diola dirulaguntzarik emanen, eta, beraz, beste pertsona batek lan egi-teari utzi beharko diola.

2022an, erakunde horren gastuak eta diru-sarrerak 153.249 eta 152.579 eurokoak izan ziren, hurrenez hurren. Aurreko urteetan, gastuen eta diru-sarreraren arteko aldeak antzekoak izan ziren. Diru-sarreraren eta gastuen arteko desfasearen ondorioz, NGKk kredituetara jo zuen finantzaketa lortzeko.

NGKren administrazio lanak, funtsean, honako hauek izan dira: dagozkion ordainketak egitea eta jasotako dirulaguntzen justifikazioa prestatzea. Azkeneko hori araudia betez egin da, eta erakunde emaileek behar bezala berrikusi dute. Hala ere, kontabilitatea ez da behar bezala egin; horrek esan nahi du Batzorde Iraunkorrak aurkeztu behar zituen eta Batzar Nagusiak onetsi behar zituen 2019-2022 aldiko kontabilitateko egoera-orriak ez direla zuzenak, eta ez dutela NGKren ondarearen, finantza egoeraren eta emaitza ekonomikoen irudi leiala islatzen.

Era berean, egiaztatu dugu NGKko organoek ez dutela kontrol egokirik egin, eta beraz ez dituztela barne araudia betetzen dela zaintzeko ekintza egokiak egin.

2023an, NGKk ez zuen kredituen bidezko finantzaketarik jaso, eta, NGIren dirulaguntza murriztu zela ikusita, zalantza dago erakunde horrek bere gastuei aurre egiteko duen gaitasunari buruz eta, beraz, izanen duen jarraitutasunari buruz.

Azkenik, egiaztatu dugu 2019-2022 aldian NGKk egindako jarduerak gutxitu direla. Era berean, jarduera horiek gauzatzeari dagokionez, Ganbera honen iritziz NGK ez da betetzen ari araudiak esleitu dizkion eginkizun nagusiak ekonomiari, efizientziari eta eraginkortasunari dagokienez.







Egin dugun lanaren ondorioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

### *Lege konfigurazioa*

- *NGKren lege konfigurazioa aldatzea, Espainiako Gazteriaren Kontseilua-  
ren izaera juridikoaren antzekoa izateko, oinarri pribatuko entitate korporatibo  
gisa definituz.*
- *Izaera juridikoa aurreko gomendioan adierazitakoaren arabera aldatu on-  
doren, legez esleitu zaizkion eginkizun guztiak betetzea eta antolaketa egitura  
eta baliabide pertsonal eta finantzarioak bere jarduera garatzeko behar-beha-  
rezkoak diren etara egokitzea.*

### *Kontabilitatea*

- *Kontabilitate egitate guztiak behar bezala erregistratzea.*
- *Urteko kontuak formulatu aurreko egokitze eta bateratze lanak egitea.*
- *Galdu-irabazien kontua eta egoera balantzera formulatzeko kontabilitate-  
rako erabiltzen den aplikazio informatikoko akatsak konpontzea, finantza infor-  
mazioaren esparruaren arabera, erakundearen errealitatea isla dezaten.*

### *Barne kontrola*

- *Barne araudia betetzen dela zaintzea, erakundeko organoek esleituta dituz-  
ten eginkizun guztiak betez.*
- *Ordainketak egiteko sinadura mankomunatua ezartzea.*
- *NGKko kide diren erakundeen errolda berrikustea eta eguneratzea, inda-  
rrean dagoen araudiaren arabera.*
- *Urteko batzarretan formulatutako kontabilitateko egoera-orriak onestea.*
- *Lanpostu hautetsiak betetzeagatik konpentsazioa edo kalte-ordaina ematea  
berri onartzen bada, ez egitea lan kontratazio baten ondoriozko soldatak or-  
daintzeko modu gisa.*
- *Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari bu-  
ruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean publikotasunari buruz ezarritako  
errekerimenduak betetzea.*
- *Diruz lagun daitezkeen gastu guztiak aurkeztea jasotako dirulaguntzak jus-  
tifikatzean.*

### *Finantzaketa*

- *Erakundeko kideei kuotak kobratzea onestea eta eskatzea.*





- *Kreditu lerroak negoziatzea banku erakundeekin, gastuen eta diru-sarreraren desfasearen ondoriozko likidezia arazoak konpontzeko.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

*(Ignacio Cabeza del Salvador lehendakariak modu digitalean sinatu du dokumentu hau, bazterrean adierazitako egunean)*





## 1. gehigarria. Lege esparrua

NGKri aplikatu beharreko lege esparru nagusia, besteak beste, honako hau da:

- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 11/2011 Foru Legea, apirilaren 1ekoa, Gazteriari buruzkoa.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 110/1986 Foru Dekretua, apirilaren 18koa, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteriaren Kontseilua sortzen duena.
- 53/2023 Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezartzen dituen.
- 2015ean onetsitako barne araudia eta batzarren araudia.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren estatutuz kanpoko hitzarmena, 2019ko otsailean onartua eta 2022ko irailean berritua.





## 1. eranskina. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak egindako jarduerak (2019-2022)

2019ko jarduerak NGKren memoriaren arabera

- Parte-hartzea eta asoziazionismoa:
  - a) Gazte eta politika proiektua: Hitz egiten dugu?
  - b) Mugaz gaindiko gazteen lankidetzak sareak, Akitania Berria euroeskualdeko gazteekin eztabaida foroak sortzeko. Sare horretan lau erakundek parte hartzen dute.
  - c) Prestakuntza poltsa: Gazteekin lan egiten duten erakundeei eta teknikariei zuzendutako hainbat gaitako lau prestakuntza: berdintasuna, zeinu hizkuntzan komunikatzea, LGTBI+ errealitatea, parte-hartzea kudeatzea eta elkarteetan erreleboa egitea. 16 elkartetako 62 gaztek parte hartu zuten.
- YAJAI! Aisialdiko eta denbora libreko elkarten mahaia. Elkarten arteko harremana indartzeko eta sustatzeko eta elkarten ikusgarritasuna bultzatzeko helburuarekin sortua. 11 elkartek hartu zuten parte.
- Kide diren elkarteekiko harremana: bederatzi newsletter bidali ziren, 25 bisita egin ziren 18 elkartetara, whatsapp talde aktiboa 47 erakunderekin, NGKren 40 mezurekin eta elkarten 41 mezurekin.
- Osasun sexualari buruzko kanpaina: Hiesaren aurkako Herri Batzordearekin lankidetzan, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak finantzatuta: informazio eta prebentzio materiala banatu zen 29 festa eta ekitalditan.
- Gozamenez programan parte hartzea. Programa horrek dirulaguntza eta kudeaketa espezifikokoak ditu.
- Aholkularitza eta informazio ekintzak: hamar pertsona artatu ziren eta sei tailer antolatu (81 pertsona bertaratu ziren).
- Gizarte-bazterketako arriskuan dauden Pedro de Atarrabia DBHiko gazteei laguntzea: 23 pertsona artatu ziren.
- Gazteen lan eta gizarte eskubideen defentsa: aholkularitza lan gatazka puntualetan (lau pertsona artatu ziren) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko praktika taldean parte hartzea.
- Etxebizitza eta gazteen emantzipazioa: alokairurako laguntzei buruzko aholkularitza: Emanzipa (1990 eta 1996 bitartean jaiotakoak) eta David (adingabeak ardurapean dituzten familiak/pertsonak). Guztira 95 pertsona artatu ziren.
- Nazioarteko mugikortasuna: EEK. Boluntarioak bidaltzeko eta hartzeko erakunde koordinatzaile gisa, 24 pertsona artatu ziren, eta tailer bat egin zen ikastetxe batean. 15 pertsona bertaratu ziren.





- Bizikidetzeta eta diskriminaziorik eza: ZASKAn (Nafarroako zurrumurruen aurkako sarea) parte hartzea.

- Komunikazioa: webgunea, presentzia sare sozialetan eta komunikabideetan.

#### 2020ko jarduerak NGKren memoriaren arabera

- Ikastetxe bat bisitatzea.
- Nafarroako gazte elkarten mapaketa.
- Gazte elkarten eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren arteko jardunaldia.
- “Gazte arduradunak” kanpaina.
- Erakunde kideetara egiten diren bisitak sistematizatzea eta haiekiko harreman kanalak sustatzea.
- Gazte elkarteek konfinamenduan zuten egoera ezagutzeko galdetegia. 15 elkartek erantzun zuten.
- 31 newsletter bidaltzea elkarteei.
- Whatsapp taldea, 40 elkarterekin, NGKk bidalitako 34 mezurekin eta elkarteek bidalitako 41 mezurekin.
- COVID-19aren Whatsapp taldea, 23 elkarterekin, NGKk bidalitako 61 mezurekin eta elkarteek bidalitako 60 mezurekin.
- Sei bilera egin ziren hainbat elkarterekin.
- Lantaldeekin hiru bileratan parte hartzea.
- Kulturartekotasuna – Kolektibo arteko gazteei buruzko bost topaketa.
- Aurrabiako Udalarekin batera, etxebizitzarekin lotutako lantalde batean parte hartzea.
- Nafarroako enbaxadei laguntzea VII. eta VIII. zikloetan, eta Gazteekiko El-karrizketaren Enbaxadei buruzko I. Prestakuntzan parte hartzea.
- Nafarroako Gazte Parlamentuaren proiektua.
- Gune birtualak dinamizatzeko prestakuntza; 21 pertsonak hartu zuten parte.
- Eraiki: Ekarpinak egiteko web-orria. 124 proposamen jaso ziren.
- Azkenean ezarri ez den Olatuak proiektuari buruzko 11 bilera.
- Bilerak alderdiekin, Nafarroako Gobernuarekin, Parlamentuko Mahaiarekin, ekitaldietara joatea, etab.





- Gazteriaren Foru Plana egiteko lau bileratan parte hartzea.
  - Nafarroa Suspertzeko Planera bideratutako 160 proposamen baino gehiago biltzen dituen dokumentua egitea.
  - Zortzi bilera egin ziren Nafarroan etxebizitza eskuratzeko errealitatea diagnostikatzeko eta salatzeke.
  - Nafarroan bizi diren inoren kargura ez dauden adingabe eta gazteen errealitatearen diagnostikoa eta salaketa: zazpi bilera eta hiru ekintza.
  - Zaska programan parte hartzea.
  - Osasun sexuala sustatzeko kanpaina – DisfrutaTU Fest: aurrez aurreko presentzia: “Iruña Rock gauak” (urriak 9 eta 10).
  - Osasun sexualari buruzko kanpaina - Llévame Contigo.
  - Laneratzeko proiektu pilotua Atarrabian. 2018an, 2019an eta 2020an egin zen proiektua.
  - Lau informazio saio egitea online, ikasleei eta familiei zuzenduta, ikastetxeko orientatzaileak identifikatuta.
  - Landa-lana Atarrabiako etxabe eta kuadrillekin, azterketa/diagnostikoa egiteko beharrezkoa.
  - Elkartasunaren Europako Kidegoa (EEK): sei lan saio, 18 pertsona artatu ziren.
  - Gozamenez programan parte hartzea.
  - Film laburren VII. Lehiaketa. Nola gozatzen duzu? 11 film labur aurkeztu ziren.
  - Lotsagabeak antzerkia. 70 pertsona bertaratu ziren.
  - Arreta eta informazioa, eta gizarte, lan eta etxebizitza orientazioa: 18 aurrez aurreko arreta, 21 telefono bidezko arreta, bost bilera, hiru erakunde parte-hartzaile eta sei tailer (48 parte-hartzaile).
  - Sare sozialetan eta komunikabideetan parte hartzea.
- a) Gazte Ágora Foroa: hiru artikulua.
  - b) Nafarroako Gazteriaren Emantzipazioaren Behatokia: sei artikulua.
  - c) Gazte arduradunak: bi artikulua.
  - d) Nafarroako Suspertze Planerako proposamenak: bost artikulua.
  - e) NUPIK: hiru artikulua.
  - f) Udalekuen egoera: zortzi artikulua.





- g) Llévame Contigo kanpaina (osasan sexuala): bost artikulua.
- h) Gazteriaren Nazioarteko Eguna: zazpi artikulua.
- i) Kontseiluaren Ezohiko Batzarra: sei artikulua.
- j) Kontseiluaren eta NGIren arteko hitzarmena sinatzea: bost artikulua.

## 2021eko jarduerak NGKren memoriaren arabera

- Berdintasunari eta parte-hartzeari buruzko hiru jardunaldi (18 parte-hartzaile), Europaren eta Osasun Mentalaren Egunak (20 parte-hartzaile).
- Hiru sentsibilizazio kanpaina egitea: Gazte arduradunak, M8 eta osasun mentala.
- Kide diren elkarteekiko harremana: 29 newsletter bidali ziren, 23 bisita egin ziren 11 elkartetara, whatsapp talde aktiboa 28 erakunderekin, NGKren 35 mezurekin eta elkarteen bi mezurekin.
- Barneko zazpi lantalde eratzea.
- Nafarroako Gazte Parlamentua.
- Prestakuntza poltsa: hiru prestakuntza egitea: Nola lortu Europako baliabideak erakundeentzat (12 parte-hartzaile); espazio birtualak dinamizatzea (13 parte-hartzaile) eta oratoria eta bozeramailetza (14 parte-hartzaile).
- Harremanak parlamentu taldeekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Nafarroako Parlamentuarekin.
- Erakundeen ordezkariak hainbat ekitalditan.
- NGKren araudia eguneratzea NGIrekin batera.
- Gazteriaren Foru Plana egiten parte hartzea.
- ZASKAn (Nafarroako zurrumurruren aurkako sarea) parte hartzea.
- Gazte migratzaileak hartzeko kulturarteko taldean parte hartzea.
- Osasun sexualari buruzko kanpaina: Llévame contigo.
- EEK: boluntarioak bidaltzeko eta hartzeko erakunde koordinatzailea; 20 pertsona artatu dira.
- Gozamenek programan parte hartzea. Programa horrek dirulaguntza eta ku-deaketa espezifikokoak ditu.
- Ekitaldia: Emakumeen Hiria, Iruñeko historiaren ikuspegi feminista emateko, Iruñean barrena turismo ibilaldia egitearen bidez. Bi saio egin ziren, eta 27 parte-hartzaile izan ziren.





- Presentzia komunikabideetan: elkarrizketak irratian eta telebistan, presentzia sare sozialetan (Twitter, Facebook, Instagram, Youtube).

## 2022ko jarduerak NGKren memoriaren arabera

- Bi ikastetxe bisitatzea.
- Azaroaren 25eko sentsibilizazio kanpaina, “Emakumeen aurkako indarkeriaren nazioarteko eguna”.
- #GazteHate kanpaina: webgune bat sortzea gazteen rol positiboa nabarmen-tzeko (gune horrek ez du jarduerarik izan 2023an).
- Presentzia komunikabideetan: elkarrizketak irratian eta telebistan, presentzia sare sozialetan (Twitter, Facebook, Instagram, Youtube).
- Agerraldiak Nafarroako Parlamentuan.
- Gazte Parlamentua programarako proposamenak.
- Harremanak parlamentu taldeekin eta Nafarroako Gobernuarekin.
- Gazteen osasun mentalari, martxoaren 8ari, gazteen lan egoerari, Saharari eta abarri buruz argitaratutako artikuluak.
- “Eraiki: gazteen artean proposamenak biltzeko” ekimenaren bi saio antolatztea.
- Olatuak: gazteen eskolaz kanpoko parte-hartzea hobetzeko aholkularitza Zarratzen ibarrean eta Erronkarin.
- ZASKAn (Nafarroako zurrumurrueen aurkako sarea) parte hartzea.
- Gazte migratzaileak hartzeko kulturarteko taldean parte hartzea.
- Osasun sexualari buruzko kanpaina San Ferminetan.
- DisfrutatuFest kanpaina: prebentzioko sexu materiala banatzea gazteen 14 kontzertu, jaialdi eta ekitalditan.
- Sexualitateari eta gazteriari buruzko Gozamenez programa komunitarioan laguntzea.







## 2. eranskina. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoera balantzea eta galdu-irabazien kontua 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko abenduaren 31n<sup>4</sup>

2019ko eta 2020ko abenduaren 31ko egoera balantzea.

AKTIBOA	2019	2020	PASIBOA	2019	2020
<b>A) AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>2.700</b>	<b>2.700</b>	<b>A) ONDARE GARBIA</b>	<b>-176.067</b>	<b>-339.659</b>
I. Ibilgetu ukiezina	0	0	<b>A-1) Funtz berekiak</b>	<b>-176.067</b>	<b>-339.659</b>
II. Ibilgetu materiala	2.700	2.700	I. Kapital soziala	0	0
III. Ondasun higiezinetakako inbertsioak	0	0	II. Jaulkipen prima	0	0
IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	0	0	III. Erreserbak	0	0
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	0	0	IV. (Akzio eta ondare-partaidetza propioak)	0	0
VI. Zerga geroratuaren bidezko aktiboak	0	0	V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	0	0
<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>-174.502</b>	<b>-346.886</b>	VI. Bazkideen bestelako ekarpenak	0	0
I. Izakinak	0	0	VII. Ekitaldiko emaitza	-176.067	-339.659
II. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-170.274	-336.813	VIII. Konturako dibidendua	0	0
1. Bezeroak, salmenten eta zerbitzuen ondorioz	-499	-818	<b>A-2) Ondare garbiko doikuntzak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
2. Akziodunak, eskatutako despoltsapenak direla-eta	0	0	<b>A-3) Jasotako dirulag., dohain. eta le-gatuak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
3. Bestelako zordunak	-169.774	-335.996	<b>B) PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
III. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	0	0	I. Epe luzeko zuzkidurak	0	0
IV. Epe laburreko finantza-inbertsioak	0	0	II. Epe luzeko zorrak	0	0
V. Epe laburreko ekintzak	0	0	III. Taldeko enp. eta elkartuetako e.luz. zorrak	0	0
VI. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	-4.228	-10.073	IV. Pasiboak, geroratutako zerga dela-eta	0	0
			V. Epe luzeko ekintzak	0	0
			VI. Merkataritza hartzekodun ez-arruntak	0	0
			VII. Epe luzeko zor berezia	0	0
			<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>	<b>4.168</b>	<b>-6.585</b>
			I. Epe laburreko hornikuntza	0	0
			II. Epe laburreko zorrak	0	-10.113
			1. Kreditu entitateekiko zorrak	0	-10.113
			III. Taldeko enp. eta elkartuetako e.lab. zorrak	0	702.980
			IV. Merkat. hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	4.168	3.259
			1. Hornitzaileak	0	0
			2. Bestelako hartzekodunak	4.168	3.259
			V. Epe laburreko ekintzak	0	0
			VI. Epe laburreko zor berezia	0	0
<b>Aktiboa, guztira (A+B)</b>	<b>-171.802</b>	<b>-344.186</b>	<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+B+C)</b>	<b>-171.899</b>	<b>-346.244</b>

<sup>4</sup> NGKren aplikazio informatikotik lortutako kontabilitateko egoera-orriak. Erakunde horrek ez ditu aldez aurretik lortu eta organo eskudunak ez ditu onetsi.





## 2021eko eta 2022ko abenduaren 31ko egoera balantzea.

AKTIBOA	2021	2022	PASIBOA	2021	2022
<b>A) AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>2.617</b>	<b>2.617</b>	<b>A) ONDARE GARBIA</b>	<b>-140.782</b>	<b>-140.109</b>
I. Ibilgetu ukiezina	0	0	<b>A-1) Funts berekiak</b>	<b>-140.782</b>	<b>-140.109</b>
II. Ibilgetu materiala	2.617	2.617	I. Kapital soziala	0	0
III. Ondasun higiezinak eta inbertsioak	0	0	II. Jaulkipen prima	0	0
IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	0	0	III. Erreserbak	0	0
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	0	0	IV. (Aazio eta ondare-partaidetza propioak)	0	0
VI. Zerga geroratuaren bidezko aktiboak	0	0	V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	0	0
			VI. Bazkideen bestelako ekarpenak	0	0
<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>-135.157</b>	<b>-20.700</b>	VII. Ekitaldiko emaitza	-140.782	-140.109
I. Izakinak	0	0	VIII. Konturako dibidendua	0	0
II. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	-6.792	-6.792	<b>A-2) Ondare garbiko doikuntzak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
1. Bezeroak, salmenten eta zerbitzuen ondorioz	0	0	<b>A-3) Jasotako dirulag., dohain. eta legatuak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
2. Akziodunak, eskatutako despoltsapenak direla-eta	0	0			
3. Bestelako zordunak	-6.792	-6.792	<b>B) PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
III. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	0	0	I. Epe luzeko zuzkidurak	0	0
IV. Epe laburreko finantza-inbertsioak	0	0	II. Epe luzeko zorrak	0	0
V. Epe laburreko ekintzak	0	0	III. Taldeko enp. eta elkartuetako e.luz. zorrak	0	0
VI. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	-128.365	-13.908	IV. Pasiboak, geroratuak zerga dela-eta	0	0
			V. Epe luzeko ekintzak	0	0
			VI. Merkataritza hartzekodun ez-arruntak	0	0
			VII. Epe luzeko zor berezia	0	0
			<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>	<b>5.217</b>	<b>-1.345</b>
			I. Epe laburreko hornikuntza	0	0
			II. Epe laburreko zorrak	0	-8.000
			1. Kreditu entitateekiko zorrak	0	-8.000
			III. Taldeko enp. eta elkartuetako e.lab. zorrak	0	0
			IV. Merkat. hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	5.217	6.655
			1. Hornitzaileak	0	0
			2. Bestelako hartzekodunak	5.217	6.655
			V. Epe laburreko ekintzak	0	0
			VI. Epe laburreko zor berezia	0	0
<b>Aktiboa, guztira (A+B)</b>	<b>-132.541</b>	<b>-18.084</b>	<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+B+C)</b>	<b>-135.566</b>	<b>-141.455</b>





## Galdu-irabazien kontua 2019ko eta 2020ko abenduaren 31n

	2019	2020	2021	2022
<b>Zorra (hartzekoa)</b>				
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	0	0	0	0
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldea	0	0	0	0
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	0	0	0	0
4. Hornigaiak	0	0	0	0
5. Bestelako ustiatzeengatiko diru-sarrerak	0	0	0	0
6. Langileria gastuak	132.720	126.614	101.322	109.991
7. Bestelako ustiatze gastuak	43.792	30.450	39.460	44.213
8. Ibilgetuaren amortizazioa	0	0	0	0
9. Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena eta beste batzuk	0	0	0	0
10. Gehiegizko hornidurak	0	0	0	0
11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0	0	0
12. Beste emaitza batzuk	0	0	0	0
<b>A) Ustiapenaren emaitza (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12)</b>	<b>-176.512</b>	<b>-157.064</b>	<b>-140.782</b>	<b>-154.149</b>
13. Diru-sarrera finantzarioak	0	0	0	0
a) Finantza izaerako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak egozteak	0	0	0	0
b) Bestelako diru-sarrera finantzarioak	0	0	0	0
14. Gastu finantzarioak	135	474	0	457
15. Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa	0	0	0	0
16. Kanbio-diferentziak	0	0	0	0
17. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0	0	0
18. Bestelako diru-sarrera eta gastu finantzarioak	0	0	0	0
a) Gastu finantzarioak aktiboan sartzea	0	0	0	0
b) Hartzekodunen hitzarmenetatik eratorritako diru-sarrera finantzarioak	0	0	0	0
c) Gainerako diru-sarrerak eta gastuak	0	0	0	0
<b>B) Emaitza finantzarioa (13+14+15+16+17+18)</b>	<b>-135</b>	<b>-474</b>	<b>0</b>	<b>-457</b>
<b>C) Zerga aurreko emaitzak (A+B)</b>	<b>-176.647</b>	<b>-157.538</b>	<b>-140.782</b>	<b>-154.606</b>
19. Mozkinen gaineko zerga	0	0	0	0
<b>D. Ekitaldiko emaitza (C + 19)</b>	<b>-176.647</b>	<b>-157.538</b>	<b>-140.782</b>	<b>-154.606</b>

